KULTURA SAILA

5968

AGINDUA, 2008ko urriaren 14koa, Kultura sailburuarena, saileko goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko egindako deialdia ebatzi eta delako lanpostua betetzeke uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta sail honetan dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Kultura sailburuak 2008ko abuztuaren 25ean emandako Aginduko (irailaren 10eko EHAAren 172. zk.) laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Kultura Saileko Hizkuntza politikarako Sailburuordetzako goi-kargudun idazkari lanpostua (C/D taldea, 520010/128 kodea, 18 maila) betetzeke uztea.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu beharko da Administraziorekiko Auzietako Epaitegian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 14a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5968

ORDEN de 14 de octubre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se resuelve la convocatoria por la que se declara desierta la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de Secretaria de Alto Cargo del Departamento de Cultura.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la base cuarta de la Orden de 25 de agosto de 2008 (BOPV n.º 172, de 10 de septiembre) de la Consejera de Cultura, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo de este Departamento.

DISPONGO:

Primero.– Declarar desierta la convocatoria de la plaza Secretaria de Alto Cargo, Grupo C/D, nivel 18, código 520010/128, en la Viceconsejería de Política Lingüística, del Departamento de Cultura.

Segundo.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiera dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.